

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Hasierako onespena ematea etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua arautzen duen araudiari, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen araudiari, bai eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrietan adinekoentzako ostatu zerbitzua, eguneko arreta eta zerbitzu osagarriak arautzen dituen udal erregelamenduari ere

Udal honek, 2025eko urriaren 3an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua arautzen duen araudiari, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako harrera etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen araudiari, bai eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrietan adinekoentzako ostatu zerbitzua, eguneko arreta eta zerbitzu osagarriak arautzen dituen udal erregelamenduari ere.

Bat etorritoki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoarekin, hasiera batean onetsitako erregelamenduen testua udal bulegoetan jarri da ikusgai, interesa dutenek espedienteak aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten. Horretarako, hogeita hamar egun izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsitzat joko dira erregelamenduak.

Azilu, 2025eko urriaren 7a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA